

Gorbeialdeko TURISMO MAHAIA
FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUDIA

1. Artikulua.- Xedapen orokorrak eta jardun-eremuak.

Araudi honen helburua Arratia-Nerbioi eskualdeko Gorbeialde Landa Garapen Elkartearen eremuan egingo diren turismo mahaien funtzionamendua arautzea da; elkarte horretan udalerrri hauek parte hartzen dute: Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Urduña, Orozko, Otxandio, Ubide, Zeanuri eta Zeberio.

Era berean, araudi honetan Turismo Mahaiaren eta Gorbeialde Landa Garapen Elkartearen Erakunde Mahaiaren arteko harremanak arautuko dira.

Horrela, bada, Turismo Mahaia indarrean dagoen araudiak zehazten duenaren arabera antolatuko da, eta horren funtzionamendua bat etorriko da araudi honetan xedatzen denarekin; nolahi ere, beste araudi bat ezarriko balitz, araudia aldatu ahalko da.

2. artikulua.- Aurrekariak.

Euskal Turismoaren 2010-2013ko Lehiakortasun eta Berrikuntza Planak planteatzen duen ikuspegiak ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ikuspegitik iraunkorra eta kalitatezkoa den turismo-helmugatzat hartzen du Euskadi, lehentasunezko merkatuetarako eta pertsona guztientzako irisgarri eta erakargarritzat. Esperientzia anitzeko helmuga, geroz eta handiagoa den eskariari egonaldi gogoangarriak eskaintzeaz gainera, bisitariak leial bilakatzeko eta iraupen handiagoko bisitaldiak —lurralde osoan nahiz urte osoan ondo banatuak— txertatzeko gai dena.

Horretarako, plan horrek euskal politika turistikoaren lehentasunak finkatzen ditu, ahaleginen eta baliabideen xede izango diren ardatz estrategikoak, jardun-ildoak eta ekimenak ezarriz eta sektorea (agente publikoak nahiz pribatuak) «Euskadiko 2010-2013ko Turismoaren Marketin

Planarekin» bat egitea ahalbidetuz. Azken Plan horrek esperientzia anitzeko Euskadira eskaera turistiko anitzagoa eta errentagarriagoa erakartzea du xede, lehenetsuneko merkatuetan (Estatuan nahiz nazioartean) Euskadiren irudiarri nabaritasun handiagoa emanez.

Aurrekoaren ildotik, helmuga turistikoak ikuspuntu horren arabera antolatu nahi dira, horien lehiakortasuna sustatuz eta estrategia turistikoak sektorearen beharretara moldatuz; horretarako, turismo arloan eskumena eta erantzukizuna duten helmugaren erakunde publiko eta pribatuek eginkizun esanguratsua eta tratamendu espezializatua izan behar dute.

☒ **Helburu orokorra:** Euskadiren lehiakortasun turistikoa bultzatzea, horretarako turismoak sortzen duen aberastasuna eta enplegua handituz.

☒ **Helburu zehatzak:**

1. Industria turistikoan lan egiten duten enpresen eta elkarten lehiakortasuna hobetzea. Horretarako, beharrezkoa da **eskualdeko lankidetzak turistiko erakunde**en kopurua handitzea, sektore pribatuaren partaidetzarekin batera, lurraldea modu turistikoan antolatzeko eta kudeatzeko helburua dutenak.
2. Turismo eskaintzaren aniztasuna eta kalitatea handitzea. Hori lortzeko beharrezkoa da:
 - ✓ Helmuga turistikoak Kudeatzeko Programan parte hartzen duten helmuga kopurua eta Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria duten erakunde kopurua handitzea.
 - ✓ Helmuga turistikoaren inguruko estrategia bat bultzatzea, bat datorrena Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bidez Euskadiko helmuga turistikoaren multzoarekin.
 - ✓ Euskadiko Top Esperientzien kopuru esanguratsu bat sortzen laguntzea, baita Marketin 2010-1013 Planaren gainontzeko produktu turistikoena ere.
 - ✓ Marketin 2010-1013 Planarekin bat datozen ekintzak sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.

3. Euskadi aitortutako turismo-marka gisa kokatzea, haren berezitasun eta bereizgarriengatik.

- ✓ Turistek helmugarekin duten gogobetetze-maila areagotzea.
- ✓ Euskadi helmuga turistiko jasangarri, kalitatezko eta esperientzia anitzeko gisa identifikatzea.

3. artikulua.- Turismo lankidetzarako erakundeak/ Helmuga kudeatzeko erakundea.

Turismo lankidetzarako eskualdeko erakundeak elementu erabakigarriak dira Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Planaren (2010-1013) garapenerako, aurreikusitako kudeaketa ereduaren arabera, eta horretarako, helmugako turismo-sektorearekin lotutako erakunde publiko zein pribatuak (mankomunitateak, Kuadrillak, eta abar) biltzen dituzte.

Arratia-Nerbioi eskualdearen kasuan, Gorbeialde Landa Garapen Elkarteak ordezkutzen du helmuga kudeatzeko erakundea.

Erakunde horrek “Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Plana” eta “Marketin Turistikoaren Euskadiko Plana” zabaltzen eta garatzen parte hartuko du. Ildo horretan, Turismoko Sailburuordetzak bultzatutako planak garatzearen ondorioz, Basquetour, S.A. enpresari atxikitzeko bi protokolo egin behar izan dira, produktuaren eta lehiakortasunaren alorrean.

Eragile horien azken helburua zera da, modu koordinatu eta parte-hartzailean beren gain hartzea eskualdea turismo-helmuga lehiakor bilakatzeko lana, arestian deskribatutako ikuspegiari jarraiki; hori lortzeko, hainbat «mahaiez» baliatu beharko dute:

- Erakunde mahaiak
- Turismo mahaiak
- Azpisektore mahaiak
- Lan taldeak.

4. artikulua.- Erakunde Mahaia.

«Erakunde Mahaia» bere erantzukizunari dagozkion eginkizunak betetzeaz gain, eskualdeko turismo-garapenerako plan estrategikoa onesten duen erakundea da, eta baita Kudeaketa Erakundearen egitura plana eta Turismo Mahaiaaren proposamenak onesten dituen ere.

a) Erakunde Mahaia bat dator Gorbeialde Elkarteko Zuzendaritza Batzordearekin. Kide hauek osatzen dute:

- Presidentea
- Presidenteordea
- Diruzaina
- Idazkaria
- Estatutuek ezartzen duten batzordekide kopurua.

b) Elkartearen beraren estatutuen arabera antolatzen da.

c) Erakunde Mahaiaaren betebeharrak hauek dira:

- ☒ Araudi hau bera eta etorkizunean izan ditzakeen erreformak eta aldaketak onestea.
- ☒ Turismoari dagokion urteko aurrekontua onestea.
- ☒ Turismo Mahaiaaren proposamenak onestea, eta horretarako, egoki eta beharrezko irizten duen informazio guztia bildu ahalko du.
- ☒ Turismo Mahaiko kideak lanean hasten edo baja hartzen dutenean onestea.
- ☒ Elkartearen turismo proiektuetan parte hartzen duten udaletako hiru ordezkariak izendatzea, Turismo Mahaian aritzeko. Ordezkaritza hori Arratia eta Nerbioi azpi-eskualdeetako kideek osatuko dute, hain zuzen, Arratiako (Otxandio barne) bi kidek eta Nerbioiko batek.
- ☒ Araudi honek edo indarrean dagoen legediak Turismo mahaiei esleitzen ez dien beste eginkizunak betetzea.

5. artikulua.- Turismo Mahaia.

«Turismo Mahaia» honako ezaugarri hau duen partaidetza- eta lankidetzaren organotzat hartzen da: bere jardun-esparruan turismo-garapen integralarekin lotutako proiektu eta ekimen zehatzen plangintzan, egikaritzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea eta lankidetzaren aritzea.

Gorbeialdeko Turismo Mahaia berezko izaera juridiko gabeko erakundea da, eta ordezkari publikoek osatuko dute, eta horien artean, ezinbestean egon beharko du erakunde kudeatzailearen beraren eta Sailburuordetzaren ordezkari batek, eta baita turismo-sektoreko nahiz eskualdeko turismo-jardueran interesa eta lotura duten beste zenbait sektoretako hainbat ordezkari pribatuk ere.

Helburu izango du inguruan turismoa garatzeko eredu bat definitzea, lehentasunezko eta kalitatezko helmuga modura, industria turistikoaren errentagarritasun sozial eta ekonomikoaren dinamizazioaren eta eskaintzaren kalitatea hobetzearen bidez.

6. artikulua.- Parte hartzaileak/ Turismo Mahaiko kideak

Gorbeialdeko Turismo Mahaia kide hauek osatuko dute, hasiera batean:

SEKTORE PUBLIKOA	ORDEZKARI KOPURUA
Gorbeialde Landa Garapen Elkartearen presidentetza	1
Eskualdeko Udalak	3
Eusko Jaurlaritzaren	1
Bizkaiko Foru Aldundia	1
Basquetour- Turismoaren Euskal Agentzia	1
SEKTORE PRIBATUA	

Ostatuak (Hotelak, Landetxeak, Landa-turismoa, Kanpinak, aterpeak, eta abar)	2
Jatetxeak, Tabernak eta Kafetegiak	1
Lehen sektorea eta artisauak	1
Kultura elkarteak, kirol elkarteak, aisialdiko elkarteak, eta abar.	1
Turismo zerbitzuko enpresak	1
Harrera, arreta eta informazioa emateko guneak (Turismo bulegoak, Parketxeak, Museoak, eta abar)	1
GUZTIRA	14

Turismo Mahaiko kide kopurua handitu edo txikitu egin daiteke Gorbeialde Landa Garapen Elkartearen turismo egoeraren baitan dauden kasuan kasuko azpi-sektoreko ordezkartzaren arabera. Erakunde Mahaiak erabakiko du mahaian nork parte hartzen duen, interesatuak aurretiaz eskatu eta gero. Erakunde Mahaiak ofizioz adostu dezake kideen baja, interesatuak hala eskatu ondoren.

Aurrekoez gainera, Gorbeialdeko kudeatzaileak edota Elkarteko turismo kudeatzaile teknikariak parte hartuko du mahai horietan, eta bietako batek idazkari lanak egingo ditu.

7. artikulua.- Turismo Mahaiaren antolaketa.

a) Turismo Mahaiaren Presidentea Erakunde Mahaiaren Presidentea izango da. Gainontzeko kideek hitza eta botoa izango dute.

b) Batzarrak bi mahaietako Presidenteak deituko ditu, biltzeko data baino sei egun lehenago, eguneko gai-zerrendan azaltzen direnak aztertu ahal izateko eta ahalik eta jende gehienak parte hartzeko. Deialdi horietan eztabaidatu beharreko gaiak zeintzuk diren ere zehaztuko da.

c) Batzarra lehenengo deialdian egin ahal izateko, Presidentearen eta, behintzat, Mahaiko kideen kopuru osoaren erdia egotea beharrezkoa da.

Bigarren deialdia lehenengo deialdia baino ordu erdi beranduago egingo da, eta orduan, Turismo Mahaia osatuta dagoela esateko, behintzat Presidente eta mahaiko kideen kopuru osoaren laurden bat egon beharko du.

d) Turismo Mahaiaren ohiko bilkurak urtean bi aldiz egingo dira behintzat (bat sei hilero), eta ezohiko bilkurak Presidenteak deitzen dituen egongo dira edo kideetako batek hala eskatzen duenean.

e) Erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengoaren arabera hartuko dira. Turismo Mahaiak lanerako izaera aholku-emailea du, eta, beraz, hartzen dituen erabakiak adierazgarriak izango dira, eta ez lotesleak.

f) Egiten den bilera bakoitzean Idazkariak (turismoaren arloko kudeatzaile teknikariak edo Elkartearen Kudeatzaileak) akta jasoko du.

g) Mahaiaren bileretara aholkulari joan daitezke Presidentetzak edo Mahaiko kideen gehiengoak egoki irizten dituzten espezialistak, adituak edo elkarteetako kideak; horiek hitza izango dute, ez, ordea, botoa emateko eskubiderik.

h) Turismo Mahaiak teknikari talde bat izango du laguntzaile; talde hori Gorbeialde Landa Garapen Elkarteko Kudeatzaileak, elkarte bereko turismo Kudeatzaile Teknikariak eta proiektuak ongi garatzeko beharrezkoak diren kasuan kasuko teknikariek osatuko dute.

i) Presidentearen betebeharrak hauek dira:

☒ Turismo Mahaia biltzea eta horren buru izatea.

☒ Eguneko gaiak zehaztea.

☒ Turismo Mahaiaren adostu diren hitzarmenak eta proposamenak Erakunde Mahaira eramatea.

☒ Orokorrean, Turismo Mahaiak behar bezala lan egin dezan beharrezko irizten dituen neurriak hartzea.

i) Presidenteordearen betebeharrak hauek dira:

Presidentearen eginkizunak bere gain hartzea eta hura ordezkatzeko aldi baterako bere kargua bete ezin badu. Horrela, presidentetzak berariaz haren gain uzten dituen eginkizunak eta gaitasun guztiak bete beharko ditu.

8. artikulua.- Azpisektore Mahaiak

«Azpisektore Mahaia», bestalde, eskualdeko turismo-azpisektore jakin bateko enpresak biltzen dituen organoa da, eta bi xede nagusi ditu; batetik, enpresek turismoari dagokionez helmugan ezarritako estrategiak ezagut ditzaten lortzea, eta bestetik, Turismo Mahaira hobekuntza-proposamenak eramatea.

a) Eskualde batean Turismo Mahaiaren ordezkaturiko turismo azpisektore adina Azpisektore Mahai egon daitezke.

b) Gorbeialden azpisektore mahai hauek egingo dira:

SEKTOREA	MAHAI KOPURUA
Ostatuak	1
Sukaldaritza	1
Lehen sektorea eta Artisautza	1
Kultura, kirol, aisia eta beste arlotako elkarteak	1
Turismo zerbitzuetako enpresak, turismo bulegoak, Parketxeak eta Museoak	1

c) Azpisektore Mahaiak eginkizun hauek bete behar dituzte:

Haien ordezkariak aukeratzea, Turismo Mahaietara sektore osoaren ordezkari joango direnak. Horretarako, titular bat eta ordezeko bat izendatuko da, lehenengoak bilerara joaterik ez balu bigarrenagoa haren lekuan joan dadin.

Planak, programak eta jarduerak proposatzea, kasuan kasuko ordezkariak Turismo Mahaietara eraman ditzan.

d) Turismo Mahaiaren sektoreetako ordezkariak konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Turismo Mahaiak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren azpisektoreari buruzko datuak biltzea eta Azpisektore Mahaietan garatutako proposamenak Turismo Mahaietara eramatea.

2. Haren sektoreko kideei hartutako ondorioen, antzemandako beharren eta identifikatutako jokaeren berri ematea.

3. Haren sektoreko kideei Turismo Mahaien ondorioz abiarazitako jardueretan parte hartzeko deia egitea eta partaidetza hori sustatzea.

e) Azpisektore mahaietako kide kopurua handitu eta txikitu egin daiteke eskualdean duen azpi-sektoreko ordezkartzaren arabera.

9. artikulua.- Lan taldeak

Lan taldeak sektoreetako langileen elkarlana ahalbidetzeko egiturak dira, alor hauetan aritzeko:

- Produktua.
- Lehiakortasuna.

Lan talde horiek abian jarriko dira helmugak Basquetour agentziaren eskutik antolatutako programetan parte hartzen duen heinean, eta erakunde horrekin sinatutako atxikimendu protokoloen arabera. Hauek dira programak:

- Produktu arloa (Lehiakortasun programaren ardatzetan definitua: 5. ardatza –Marketin Estrategikoa eta Merkatu Inteligentzia, eta 6. ardatza –Turismoa dinamizatzea eta helmuga antolatzea)
 - Esperientziak, playground eta zirkuituak.
 - Gastronomía eta Ardoak
 - Natura eta Abentura
 - *Touring*
 - *City Breaks*
 - Elkarretaratzeak
 - Kultura-turismoa eta Ekitaldiak
 - Landa turismoa
- Lehiakortasun arloa:
 - Ostalari programak (Pertsonak, prestakuntza eta ezagutzaren kudeaketa).
 - Jardunbide Egokiak Kalitatea programak – HELMUGAK programa (Kalitatea eta Eskuragarritasuna elementu bereizgarritzat)

- Eskuragarri programa (Kalitatea eta Eskuragarritasuna elementu bereizgarritzat)
- IKTak erabiltzeko Jardunbide Egokiak programa (Euskal Industriaren Berrikuntza eta Teknologia Garapena)

10. artikulua.- Turismo Mahaiko parte hartzaileen eskubideak

Hauek dira parte hartzaileek dituzten eskubideak:

- a) Mahaiaren helburuak lortzeko abiarazten diren zerbitzu eta bitarteko guztiekin gozatzea.
- b) Turismo Mahaietan eta egiten diren ekitaldietan parte hartzea, eta erabakiak hartzeko orduan hitza izatea.
- c) Mahaiak ematen dizkion eskuduntzak egitea.

11. artikulua.- Turismo Mahaiko parte hartzaileen betebeharrak/egitekoak.

Hauek dira parte hartzaileen betebeharrak:

- a) Mahaiak dituen helburuak lortzeko modu aktiboan parte hartzea.
- b) Araudiak eta Erakunde Mahaiko eta Azpisektore Mahaietako xedapenak betetzea.
- c) Mahaiko ordezkariak izendatzea. Horretarako, titular bat eta ordezeko bat izendatuko dituzte, lehenengoak ezin badu, bigarrenengoak haren lekua har dezan.
- d) Turismo Mahaiko kideetako ordezkari bakoitzak konpromiso hauek hartuko ditu:
 - 1.- Turismo Mahaiak hartzen dituen ebazpenak edo akordioak helaraztea, ordezkatzeko duen erakundeko edo sektoreko gainontzeko parte hartzaileei.
 - 2.- Turismo Mahaiak modu egokian garatzeko erakundearen beharrezko datuak biltzea.
 - 3.- Haren erakundeko edo zerbitzuko kideei hartutako ondorioen, antzemandako beharren eta identifikatutako jokoaren berri ematea.
 - 4.- Haren elkartekideei Turismo Mahaien ondorioz abiarazitako jardueretan parte hartzeko deia egitea eta partaidetza sustatzea.

12. artikulua.- Araudia aldatzea.

Araudi hau aldatu ahalko da Presidentetzak edo Mahaian parte hartzen duen edonork hala eskatzen badu, eta Erakunde Mahaia izango du erabaki hori hartzeko eskumena.

Aldaketa proiektua idatzi eta gero, Presidentetzak egiten den lehenengo Erakunde Mahaiko gai-zerrendan sartuko du testua, mahaia onesteko edo, hala balegokio, proposamena egin duen erakundeari itzultzeko, berriz azter dezan.

Erakunde Mahaiko deialdiari Araudien aldaketa jasotzen duen testua atxikiko zaio, mahaikideek egoki irizten dituzten zuzenketak egin diezaioten; zuzenketa horiek Erakunde Mahaia jakinaraziko dizkiote.

Zuzenketak pertsona bakarraren izenean edo talde baten izenean egin daitezke, idatziz betiere, eta beste testu bat izango dute aukeran.

13. artikulua.- Zigor araudia

Turismo mahaietako eta azpisektore mahaietako kideak zigortuak izan daitezke arauak hausteagatik. Mahaikide bat Turismo Mahaia egiten dituen batzarretara behin eta berriz ez bada agertzen, behin betiko baja eman ahalko zaio; hori egin aurretik, idatziz jakinaraziko zaio eta ordezkatzeko duen sektoreari entzun egingo zaio.

Horretarako, mahaiko Presidentetzak zigortu daitezkeen jarrerak argitzeko ikerketa bat abiarazteko erabakia har dezake. Erakunde Mahaia ardura izango da zigorrak jartzea.

Zigortzeko erabakia arrazoitua izango da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko da Erakunde Mahaia aurrean, ekintzei kalterik egin gabe.

Areatzan, 2011ko azaroaren 30ean.